



Hiru buru eta txapela bakarra gaur, Xake Txapelketaren azkeneko partidetan

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da azkeneko jardunaldia, Kixkal tabernan; eta Evgeny Makarovek, Miguel 'Xerpa'k eta Edu Sanzek daukate aukera, txapeldun izateko.

HERNANI XAKEA

Gaur bukatuko da, Hernaniko Xake Txapelketa; eta azkeneko partidaren atarian, hiru jokalarik daukate aukera, aurten txapela janzteko: Evgeny Makarov, Miguel *Xerpa* eta Edu Sanz.

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da zazpigarren jardunaldia, azkenekoa, Kixkal tabernan. Elkarren kontra ariko dira Makarov eta *Xerpa*, eta Udo Esnaola izango du aurrez aurre, Sanzek. Sailkapeneko buru da Makarov, 5,5 punturekin, eta puntu erdira bigarrena da Sanz, 5ekin. *Xerpa*, berriz, 4,5 punturekin dago, baina gaur irabazita, Makarov berdinduko luke sailkapenean. Eta horrek, aukera emango lioke Sanzi txapela janzteko, Esnaola irabaziz gero.

lari irabaziz gero.

Gainerakoek, ez daukate txapeldun izateko aukerarik. Laugarren postuan berdinduta daude Esnaola, Eneko Martiarena eta Ibon Ramos, lau punturekin. Elkarren kontra ariko dira Martiarena eta Ramos.

Hauek dira, gaur jokatu diren beste sei partidak, postuen dantzarekin lehian: Iñaki Erdozio eta Jose Mari Berrotaran; Beñat Murua eta Javier Burgos; Maitane Otaola eta Eli Agirre; Joseba Goikoetxea eta Joxe Ramon Altuna; Iñaki Arrieta eta Jose Gonzalez; eta Peru Dominguez eta Mertxe Egizurain.

Haurren Txapelketa, gaur
Azkeneko jardunaldiarekin batera, jokatu da baita ere



Gaur jokatu dute azkeneko partida, Hernaniko Xake Txapelketako guztiek.

Haurren Xake Txapelketa Azkarra, Kixkal tabernan bertan, ordu berean hasita. 14 urtetik beherakoentzat izango da.

Eta bata zein bestea bukatu ondoren, 18:30ak aldera izango

da sari banaketa. Saria jasoko dute helduen txapelketako bi onenek, Hernaniko aurrenekoak, aurreneko emakumezkoak, eta haurren txapelketa azkarreko bi onenek. **K**

Bailarako lau trikitilari gazte ariko dira Zaldibarko finalean gaur, Euskal Herrikoan

Arratsaldeko 17:30etan izango da, Olazar frontoian, eta bertan ariko dira Ianire Segurola eta Elaia Diaz, eta Eider Garro eta Araitz Elizalde.

ASTIGARRAGA-HERNANI MUSIKA

Gaur jokatu dute, Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketaren finala. Bizkaian izango da, Zaldibar herrian, arratsaldeko 17:30etan Olazar frontoian.

Sei bikote ariko dira, 28garren edizioko txapelaren bila; eta tartean izango dira Urumea bailarako bi bikote: Ianire Segurola Tolosa hernaniarra eta Elaia Diaz Beroz astigartarra,

batetik; eta Eider Garro Iraola eta Araitz Elizalde Miner hernaniarrak, bestetik.

Haiekin batera ariko dira, honako lau bikoteak: Irati Arcelus lazkaotarra eta Mirari Plazaola arrasatearra; Araitz Etxaniz azkoitiarra eta Enaitz Alberdi azpeitiarra; Julen Labaka erreizildarra eta Garazi Larrañaga azkoitiarra; eta Ane Etxezarreta olaberriarra eta Sara Iriarte billabonarra. **K**



Elaia Diaz eta Ianire Segurola, Martindegiako Trikitilari Gazteen Txapelketan.

Buruntzara mendi buelta, gaur

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Uharte Arakilera irteera bertan behera geratu ondoren, ordeztu plana antolatu du Mendiriz Mendik, gaurko. Goizeko 09:00etan Biterin elkartu, eta Buruntza mendira igoko dira, bertatik abiatuta. Parte hartu nahi duenak, nahikoa du bertara azaltzea.

'Slime 2.0' eskulan saioa, gaurkoan

HERNANI GAZTELEKUA

Abenduko egitarauari hasiera emateko, eskulan saioa egingo dute gaur *slime 2.0* izeneko material bereziarekin.

Izenematea zabalik bihar, kiroldegiko ikastaroetan

HERNANI KIROLDEGIA

Bihar zabalduko du izenemate epea, Hernaniko kiroldegia, bigarren hiruhilekoko ikastaroetarako; urtariletik apirilera bitartekoak, hain justu. Ikasle berriek, abenduaren 16ra arte izango dute apuntatzeko aukera, kiroldegiko bulegoan (astez 08:00etatik 14:00etara), edo www.kirola.hernani.eus web orrian dagoen dokumentua bete eta bidali edo kiroldegiko sarreran entregatuta. Ikasle ohiek, berriz, abenduaren 18an eta 19an apuntatu behar dute.

Udal egutegia eta sariak banatzeko, asteazkenean zita

HERNANI UDALA

Dagoeneko jakinarazi du Hernaniko Udalak, zein 13 argazkik osatuko duten 2020ko udal egutegia. Eta argazkien egileei, datorren asteazkenean banatuko dizkiete sariak, 19:00etan Biterin egingo duten ekitaldian. Bertan banatuko dituzte, egutegiaren aurreneko aleak ere.



ANTZIOLA
OKINDEGIA

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI



BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak

www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92



Funeraria VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

